

Blas de Oterok dio:

# “Errotik sentitzen nauk euskaldun”

**G**abriel Arestik 1966. urtean elkarrizketa zinez interesgami bat egin zion Blas de Oterok poetari, gero *Zeruko Argi* enagertuko zena.

Elkarrizketa horretan Blas de Oterobere euskaltzaleasun eta euskalduntasunari buruz mintzo zen Arestirekin, azken hau galderekin zorrotz ibili zelarik. Nabarmentzekoak dira elkarrizketa osoan zehar Oteroren tristezia zantzuak, eta bere aldarriak, “errotik sentitzen nauk euskaldun” (...) “nire poetatasun guztia haut zara minztatu nintzen eta nire arbasoak hainbeste gizalditan mintzatu ziren euskarari zor zioat. Bai, euskaldun sentitzen nauk espirituz eta arrazaz” bezalakoak, Blas de Oteroren hain agerikoa ez den alde ahaztua azaleratuz.

Elkarrizketa integroa hemen duzue inolako aldaketarik gabe, berako giroa nolakoa zen kar gutu zaitzen:

Lanetik nator etxera, eta nire despatxoan Blas de Oterok gure poeta haundiak itxaroten dit; esku artean nire urtegunean andreak erregalatu zidan Larousse frantses hiztegia dauka. Elkarrizketa agurtu ondoren, ba diost: “Frantses hauek nitaz oroitu dituk”.

–Bai?

–Eta hiztegia luzatzen dit.

Irakurten dut: OTERO (Blas), espainiar poeta, Bizkaiko Bilbaon 1916 garren urtean jaioa, hizpide adoredun eta idaz-tankera zehatzekoa.

Ba diotsat: “Hain famatua bihurtu haizen ezker, gizona ez litzoakek hirekin mintzatzera atrebituko”. Maxelak gorritu egiten zaizkio, lotsarren.

“Blas”, diotsat, “interview bat egin nahi diat ZERUKO ARGIA euskal aldizkarirako. Konforme hago?”.

–Ba dakik nire aberri txikiarentzat arima guztia dadukadagerturik.

–Non jaio hintzen?

–Hor diost hiztegiak. Hemen, Bilbaon. Baina egiazko nire sorterrria Orozko duk, nire amaren sorterrria bertan ikasian dakidan euskara apurra eta ahaztu zaidan euskara uga-



niaz (*Argi Mintza*) eta *Espainiaz tratatzen duena*. Baina edizio asko izan dituk liburu horietakoak, Espainian Frantzia eta Latin-Amerikan. Erdaraz bakanrik, guztiz, berrehun mila iheki, gu-txi gora behera.

–Eta beste hizkuntzetara itzulia izan haiz?

–Bai, munduko hizkuntza guztietara: Frantsesa, ingelesa, alemana, Eskandinabiako guztiak, italiar, holandesa, eslabo hizkuntza guztiak, turkoa, arabera, txinoa, japonesa...

–Eta itzuli-era guzti horietatik, zein izan da hiri poz handien eman diana?

–Material ikuspegi batetik, diru eta fama aldetik, errusoa. Ni reipoemaguztiak liburu batean, berrehun eta berrogeita hamar mila iheki edizio batean. Kontu egik zer esan nahi duen horrek. Baina sentimental ikus-

“Etorkizunerako hizkuntzak hiru dituk: errusoa, gaztelania eta euskara”

pegi batetik, bihotz aldetik, hik euskarara egin huena. Etorkizuneko hizkuntzak hiru dituk: errusoa, gaztelania eta euskara.

–Idazleetan guzti izan dira hi bezainbat estranjeriako hizkuntzetara itzuliak?

–Erdarazkoak bi bakarrik: Cervantes eta García Lorca.

–Azken galdera bat: Mundu guztiak esan ohi izan dik andrean etsai amorratua izan haizela. Orain berriz ezkondu egin haiz. Nola eta zergatik?

–Ez nauk ni andreak gaizki tratatu ditudana. Andreek naiten ni gaizki tratatu. Nire modako eta gustuko bat aurkitu nuen arte. Kubara ibitatu ninditean hitzaldi eta irakurriera batzuk ematera, eta iazko martxoaren hogeita bostean Yolanda ezagutu eta esposatu nian.

–Zoriontsu haiz harekin?

–Inoiz gertatu zaidan menturrik haundiena izan duk berarekin nire ezkontza.

Momentu honetan despatxo-ko atea zabaltzen da. Bertan Blasen andrea agertzen denaren ondoan nireka dator. Yolanda mintzatzen da. Telebistako sagutzuairen boz kantarin eta legungarria kaskarintzen da gure belarrietan:

–Mutillak, bazkaria mahaian gainean dago. Hi, aitabitik –diost niri–, arin eta bizkor habil, lanera joan behar baituk.

Ziganoa amatzen dut. Kearen artean munduan dagoen poetarik haundiena dakusat. Hala eta guztiz ere ez diot inbidiarik edukitzen. Nik behintzat etxe bat daukat, trumoiak ez badit behera botatzen, alegia! Lur bati nago itsasirik, itsasoak irunten ez badit, alegia.

Juan Ramon Madariaga

“Bilbaoko aberatsak gorrotatu dizkiat beti, eta haiekin konfunditu izan diat beti Euskal Herria”

ria. Eta Kremlinen ondoan aurkitu nintzen arte, ez ninduen kontraturik.

–Baina hik beti Espainiaren zabaltasuna kantatu duk. Euskal Herriari kontu gutxi egin diok. Zergatik hori?

–Bilbaoko aberatsak gorrotatu dizkiat beti, eta haiekin konfunditu izan diat beti Euskal Herria. Azken bolada honetan ongi kontraturik nauk alde haundia dagoela bateik bestera, eta gure herria beraren egiazko sarkontasun eta sufrikarioan kantatu diat poema zabuzetan.

–Euskaldun sentitzen haiz?

–Gure hizkuntzaren ezagutza galdu badut ere (eta hau duk inoiz gertatu zaidan desgraziarik haundiena) errotik sentitzen nauk euskaldun. Kontuan har ezak, bestela, Laroussek nitaz dioena: “Hizpide adoredun eta idaz-tankera zehatzekoa”. Hau duk gaztelatar zaharrak euskaldunaz esan zuena: “Hitzez labur eta egintzetan luze”. Nire poetatasun guztia hautzaran mintzatu nintzen eta nire arbasoak hainbeste gizalditan mintzatu ziren euskarari zor zioat. Bai, eus-

kaldun sentitzen nauk espirituz eta arrazaz.

–Baina deiturak, Otero eta Muñoz, gaztelatarrak dituk.

–Ez, lehenbizikoa, Otero, gallegoa duk. Nire aitonen aitona, Galiziatik etorri zuan Iruno mugara karabinero. Diru asko egin zian, eta donostiar euskaldun bugesiaren batu zuan ezkontzaz eta ohiturez, bigarrena, Muñoz, nafarra duk; beraz euskalduna. Gainerako nire deitura guztiak euskaldunak dituk: Murueta, Sagarmingoa Goenaga, Ugalde, Isasi eta Aldama eta honela kontua galdu arte.

–Lehen esan duk hire familia aberatsa dela. Jende askok hori botatzen dik aurpegiara aberatsa izanik poesia soziala egiten duala.

–Bai, nire familia aberatsa

duk. Otero ta rrek itsasontziak ikatz-mehatzak eta kamioi-flota ederra zeukatek. Muñoztarrek ere, ez zeukatek goixiako, base-riak eta pinudiak. Baina ni ez nauk nire familia. Alde guztietatik deseredaturik nagok, nire poetatza eta ideiak direla kausa, Nik poesia-rik jan behar diat. Autorearen deretsoak akabatzen zaizkidanean, ez zaukaat ahora zer eraman.

–Baina poeta batek poesiari jan dezake?

–Bai, baina gutxi gaudek hola-koak munduan. Dozenatxo bat, eskas.

–Hala eta guztiz ere, hik gutxi eskribatu duk.

–Nire lehen liburu *Espirituzko Kantika* hura alde batera utzirik, bost: *Aingeri hamorrotak*, *gizatiarra*, *Kontzientzia*, *Erreguika*, *Hitz eta bakea eskatzen dit*, *Gaztela* -